



NEIEren GIDA

ENPRESEN BETEKIZUNAK ETA BETEBEHARRAK:

Zer enpresa erregistratu behar da?

Euskal Autonomia Erkidegoan establezimenduak dituzten enpresa guztiak, baldin eta, gutxienez, 422/2013 Dekretuaren I. eranskinean jasotako jarduera bat egiten badute, eta beren produktuak ez badaude azken kontsumitzaileari edo dauden udalerriko merkatuetara soilik zuzenduta.

Zer betekizun bete behar ditu industria batek jarduera hasteko eta erregistroan izena emateko?

422/2013 Dekretuaren 3. artikuluan ezarritakoak.

Noiz inskribatu behar da industria bat erregistroan?

Aurrez adierazitako betekizunak betetzen direnean, hori egiaztatzeko agiriak edukita eta jarduera hasi aurretik.

Eta eskatutako dokumentazioa ez badaukat?

Ez duzu erantzukizunpeko adierazpena egin behar enpresak beharrezko dituen agiri guztiak izan arte; izan ere, adierazpen hori egitean, enpresaren arduradunak dokumentazio hori guztia duela sinatzen du.

Zer betekizun bete behar ditu industria batek NEIEren datuak aldatzeko?

422/2013 Dekretuaren 4. artikuluan ezarritakoak, kasuan kasuko aldaketa motaren arabera izango direnak.

Zenbat denbora du enpresak industria baten datuen aldaketak jakinarazteko erregistroari?

Sei hilabete.

ERREGISTROAREN PROZEDURA:

Zer da erregistroa?

Nekazaritzako eta elikadurako industriekin lotutako datu orokorren nahiz tekniko eta ekonomikoen inskripzioa da.

**Zer egin behar dut nire industria inskribatzeko Nekazaritza eta Elikadurako Industrien Erregistroan?**

Aurrez erregistratu gabeko industria edo jarduera bat bada, jardueraren hasierako erantzukizunpeko adierazpena egin beharko duzu.

Zer egin behar dut Nekazaritza eta Elikadurako Industrien Erregistroan jasota dauden nire industriaren datuak aldatzeko?

Erregistroan jasota dauden datuak aldatu nahi badituzu, aldatzeko erantzukizunpeko adierazpena egin beharko duzu. Horretarako, sartzeko gako bat beharko duzu, jakiteko Erregistroak zer datu duen jasota zure establezimenduari buruz.

Noiz egin behar dut aldatzeko erantzukizunpeko adierazpena?

422/2013 Dekretuaren 4. artikuluan jasotako edozein zirkunstantzia gertatzen denean, eta gehienez 6 hilabeteko epean.

Noiz egin behar dut titulartasuna aldatzeko erantzukizunpeko adierazpena?

Aurreko titularrak bestelako pertsona edo erakunde bat hasten denean establezimenduaren jarduera egiten, hau da, IFK edo IFZ aldatzen denean.

Betiere, hori ez bada errentamendu-kontratu baten ondorioz gertatzen.

Sozietatearen izena aldatzen bada, titulartasun-aldaketa da?

Ez, IFK edo IFZ ez bada aldatzen, aldatzeko erantzukizunpeko adierazpen bat egin beharko da, datuak aldatzeagatik.

Zer egin behar dut adierazpena bukatutzat jotzen dudanean?

Gorde («BUKATU» botoia sakatuta), inprimatu, sinatu eta Administrazioan aurkeztu beharko duzu, erregistroan sar dadin.

Noiz eta nola aurkeztu behar dut?

Enpresak sinatu eta zigilatu ondoren, posta arruntez bidali edo modu presentzian aurkeztu beharko da Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren bulegoetan (Donostia kalea 1, 01010 Gasteiz) edo sail horren lurralde historiko bakoitzeko lurralde-ordezkaritzen bulegoetan, baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 16.4 artikuluan ezarritako lekuetan ere.

Erantzukizunpeko adierazpenarekin batera, dokumentu gehiago aurkeztu behar dut?

Erregistroak eskatzen ez badizu, ez duzu bestelako dokumenturik aurkeztu behar, baina teknikariaren esku jarri beharko dituzu, ikuskapenik bada.

Nola tratatzen dira erantzukizunpeko adierazpenean ematen ditudan datuak?



Datuak 422/2013 Dekretuaren 16. artikuluan adierazitako moduan tratatzen dira.

Tasak ordaintzen dira inskripzioagatik?

Ez.

Zehapenak edo zigorrak egon daitezke?

Industriaren enpresa titularrak ez baditu betetzen dekretu honetan ezarritako betebeharrak, litekeena da zehapenak edo zigorrak ezartzea, urriaren 7ko 422/2013 DEKRETUAREN 18. artikulua (zehapen-araubidea) ezarritakoari jarraikiz. (422/2013 DEKRETUA, urriaren 7koa, nekazaritzako eta elikagaigintzako industrien erantzukizunpeko adierazpenen erregimena arautzekoa eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzkoa).

NEIEk ikuskapenak egiten ditu?

Beharrezkoak diren ikuskapenak egingo dira, jasotako datuak egiazkoak direla eta betekizunak betetzen direla ziurtatze aldera.

Aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenaren frogagiririk jasoko dut?

Aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenaren ziurtagiria igortzen du Erregistroak, eta posta ziurtatu bidez bidaltzen zaio interesdunari kasuan kasuko ondoretarako.

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK BETETZEA:**Nola betetzen dira sarrerako atalak erantzukizunpeko adierazpenetan, bai hasierakoan bai aldaketei buruzkoan?**

Izena/Sozietatearen izena atalean: Pertsonaren izena (gizabanako bat bada) eta enpresaren izena (sozietate bat bada) adierazi beharko dira.

1. abizena atalean: Gizabanakoak diren enpresen kasuan erabiliko da soilik, eta pertsonaren lehen abizena jarriko da.

2. abizena atalean: Gizabanakoak diren enpresen kasuan erabiliko da soilik, eta pertsonaren bigarren abizena jarriko da.

NAN/IFK atalean: Jardueraren titularra gizabanako bat bada, haren NANA jarriko da. Jardueraren titularra enpresa bat bada, haren IFK jarriko da.

Atalak bete beharreko hiru lauki ditu, eta honela erabiltzen dira:

1. laukia: IFK duten enpresetarako: IFKren letra sartzen da: A, B, F... Gizabanakoen enpresen kasuan (NAN), bete gabe uzten da.



2. laukia: enpresa guztietarako (gizabanakoenak zein sozietateak): IFKren edo NANaren zenbaki guztiak sartzen dira.

3. laukia: NANA erabiltzen duten gizabanakoen enpresetarako: NANaren kontrol-letra sartzen da. Sozietateen kasuan (IFK), bete gabe uzten da.

Ordezkaria atalean, legezko ordezkariaren edo sozietate-izena duen enpresaren ordezkarri gisa aritzen den pertsonaren izena eta abizenak (2) adieraziko dira.

Gizabanako bat banaiz, zer helbide jarri behar dut enpresaren helbide gisa?

Horren egoitza fiskalaren helbidea, eta bat etorri beharko da industriaren agiri guztietan (EJZ, osasuna, udala eta abar).

Establezimenduari dagokionez, zer helbide agertu behar da?

Industriaren jarduera egiten den posta-helbidea.

Zer dira izen komertzialak?

Patenteen eta Marken Bulegoan erregistratutako izenak dira, eta industriaren sozietatearen izena ordezkatzeko erabil daitezke produktuen etiketetan. Erregistratzean, «N» letra agertzen da Patenteen eta Marken Bulegoko erregistro-zenbakiaren aurrean.

Zer dira marka komertzialak?

Industriek beren produktueterako erabiltzen dituztenak (ez da beharrezkoa erregistratuta egotea).

Zer dira kalitate-ikurrak?

Produktu horren arloko administrazio eskudun batek modu ofizialean aitortutako kalitate-ikurra izatea. Adibidez: Labela, ekologikoa, jatorri-deitura, AGB eta abar.

Zer kalitate-ikur sartu behar ditut?

Ziurtatuta dauden eta produktuen etiketetan erabil ditzakezun guztiak.

Ziurtagiri bat lortzeko fasean bazaude, ez erregistratu (aldatzeko adierazpenaren bidez), lortu ondoren erregistratu beharko baita.

Zer dira kalitate-sistemen ziurtagiriak?

Ziurtapen-erakundeek emandako agiriak. Adibidez: ISO, BRC, IFS eta abar.

Zer adierazi behar dut lehengaietan eta produktu bukatuetan?

Industriaren lehengai eta produktu bukatu nagusien neurtutako urteko kopuruak adierazi beharko dira, 2008ko JPSNren arabera.



Biltegiatze-jardueren kasuan, produktu bukatuak bat etorriko dira lehengaiekin.

Zer makina eta instalazio sartu behar dituz zerrendan?

Zuzenean edo zeharka ekoizpen-prozesuaren parte diren guztiak (makinak, biltegiak, ganberak...), haien fabrikazio-data eta egungo balioa adierazita.

Ez dira sartuko bulegoak, dendak, aldagelak, material suntsikorra eta abar.

Zer atal aldatu behar dituz aldatzeko erantzukizunpeko adierazpena egitean?

Erantzukizunpeko adierazpena osatzen duten atal guztiak berrikusi behar dira, datuak berretsi, aldatu edo beste batzuk gehitzeko.

GAKOAK ERABILTZEA ERREGISTROAN:**Gakoren bat eskatu behar dut industria bati alta emateko Erregistroan?**

Ez, ez duzu gakorik behar jardueraren hasierako erantzukizunpeko adierazpena betetzeko.

Noiz eskatu behar dut erregistroko datuetara sartzeko gakoa?

Industria bat erregistratuta duzunean eta bertan erregistratutako daturen bat aldatu behar duzunean, hots, aldatzeko erantzukizunpeko adierazpena egin behar duzunean.

Nola lor dezaket nire industriaren datuetara sartzeko gakoa?

«Nekazaritza eta Elikagai Industrietako Erregistroko datuetara sartzeko gakoa eskatu» atalean eskatutako datuak bete beharko dituzu, eta, zure identifikazioa egiaztatu ondoren, gakoa daraman gutun ziurtatu bat jasoko duzu erregistroan adierazitako posta-helbidean.

Zer egin behar dut gakoa bidaliko den helbidea ez bada egokia?

Aplikazioak eskaera behar bezala egin dela berresteko mezuan adierazten duen bezala, harremanetan jarri beharko zara erregistroko langileekin eta adierazi beharko diezu zein helbidetara bidaltzea nahi duzun.

Sarbide-gako hori aldatu eta guk nahi dugun beste bat ezar dezakegu?

Gakoa finkoa da eta ezin da aldatu.

Zer ezaugarri ditu establezimenduaren gakoa?

Gakoa bakarra da NEIEren zenbaki bakoitzeko, hau da, establezimendu bakoitzak NEIEren zenbaki bakar bat du eta horri gako bakar bat dagokio, berdina izango dena establezimenduaren bizitza osoan.

**Zenbat gako izan behar ditu nire enpresak?**

NEIEren zenbat zenbaki, hainbat gako izan behar ditu enpresak.

Edozein erantzukizunpeko adierazpenetara sartzean gako bat agertzen zait, zertarako da?

Gako horrek aukera ematen digu erosoago eta errazago sartzeko erantzukizunpeko adierazpenean, ez baita lehenengo sarreran (ezkerreko aldea) emandako informazio guztia berriz idatzi eta sartu behar.

Enpresaren IFK/NANa eta ordenagailuak emandako gakoa erabiliz gero, erantzukizunpeko adierazpenaren eskuineko aldean, horrekin lan egin ahalko duzu adierazpena behar bezala bukatu arte.

Nola erabiltzen da gako hori, ordenagailuak erantzukizunpeko adierazpen horretarako eman duena alegia?

Erantzukizunpeko adierazpenaren eskuineko aldean erabiliko da, behar bestetan, hori bukatu arte. (Bukatzeke botoia)

Bukatutako erantzukizunpeko adierazpenak ezin dira aldatu.

Zer gako erabiltzen da titular baten edo alokairuaren aldaketa dagoenean?

Jardueraren titular berriak erantzukizunpeko adierazpena egin beharko du bere datuekin, baina aurreko titularraren erregistro-datuak eta gakoa erabilita.

Aldatzeko erantzukizunpeko adierazpenak egiteko nahikoa da enpresa bakoitzeko gako batekin?

Gakoa establezimenduarekin lotuta dago; hortaz, NEIEren zenbat zenbaki, hainbat gako izan beharko duzu